

2025-2026ko GRAL defentsarako prozedura (Otsaila)

1. **Defentsa egunak** **otsailak 12- 13** bitartean izango dira Tribunalak zehaztuko duen egun, ordu eta leku zehatzean. Webgunean argitaraturiko epaimahaien idazkariak izango du bere tribunal kideekin kontaktua egiteko ardura. kontaktu honetan, ordezkoa ere informatu beharko da.
2. **Otsailaren 2- 4 artean ikasleak matrikula egingo du** (dagoeneko egina ez badu).
3. **Matrikula burutu ondoren, GAUREn GRALaren atalean, ikasleak defentsa eskaera burutu eta defentsarako deialdia aukeratu (otsaila) beharko du (otsailak 2- 4 bitartean).** **Izenburua aldatu** behar bada, **ikasleak** defentsa eskaera baino lehenago egin beharko du aldaketa. Titulazio eta minor aipamenak kendu titulu hasieratik.
4. **Zuzendariak** defentsa eskaerari erantzun (lanaren izenburua berrikusi) eta txostena (gure web orriko GRALaren atalean dagoena) igoko du GAUR plataforman (**otsailaren 6 arte**).
5. **Otsailaren 10 arte ikasleak** **lana ADDI plataformara igotzeko epea izango du** (ikusi webgunean prozedura honi buruzko gida).
ADI! Ikasleak ezingo du lana igo, ez badu matrikula eta defentsa eskaera egin.
7. **Tribunaleko kideek** ADDIko mezua jasoko dute, lana deskargatu eta irakurri ahal izateko.
8. **Zuzendariak** bere ikasleei tribunalari buruzko informazioa jakinaraziko die.
9. **Otsailaren 12 eta 13an** defentsak burutuko dira
10. **Tribunalak**, ezarritako irizpideen arabera, kalifikazio prozesua burutuko du eta GAUREn argitaratuko du.
11. Tribunaleko **idazkariak** dagokion minorreko GRAL koordinatzaileari jakinaraziko dio Ohorezko Matrikula (OM) jartzeko hautagairik ote dagoen. Hala izatekotan, ikasle horren kalifikazioa OM guztiak ebatzitakoan egingo da.